

egunekoa

Patxi Goenaga

(Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea)

Euskara, ezkututik agerira

Euskarak ere badu bere nazioarteko eguna, gaur ospatzen duguna, hain zuzen. Desio genukeen normaltasuna oraindik lortu ez duten beste hainbat gaik bezala, euskarak ere badu bere eguna egutegian. Urtean zehar joan-etorriek gure inguruan sortzen duten zarataren artean, gogoetarako une bat aldarrikatzen dugu egun honetan. Egia da euskara ez dela egun bateko kontua, baina ongi da egun bat izatea geure kontzientziak pittin bat inarrosteko, ohiko errutinatik esnatzeko. Nolabait, oraindik ere, hein batean, ezkutuan daukagun hizkuntzari ahotsa emateko premia gogoratzen dugu egun honek.

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela esan ohi dugu. Hain zaharra, non ez baitakigu haren jatorriaz gauza argirik. Baina ez hori bakarrik, euskararen historiaz dakiguna ere oso azken orduko kontua da. Zeren historia hori jakiteko, nahitaezkoak ditugu testuak eta horiek oso urriak dira. Euskararen historia eremu-galtze baten historia izan dela esan daiteke. Ezkutuko historia izan da, isilpekoa, euskaldunak mutuak izan balira bezala historiarentzat. Erdi Aroa arte itxaron behar zuzeneko testuak eskuratzeko. Lehenbiziko liburua, berriz, 1545ean, Etxepareren eskuetik etorri zitzaigun: *Linguae Vasconum Primitiae*. Ordutik hona literatura apur bat sortu dugu euskaldunok, apala eta umila, baina geurea. Kontua da azken urteotan inoiz baino gehiago idatzi eta argitaratzen dela. Ezkututik agerira atera da azkenean euskara. Euskaldunok geure hizkuntzari eutsi egin diogu. Beste hizkuntza batzuk, gurea baino indartsuago eta jantziago izanagatik, erabat galdu dira, erabat ezkutatu dira.

Bestalde, nazioarteko eguna dugu. Euskarak, izan ere, gaur ezin du bizi bere oskolean gorde. Mundu zabalean barreiatuak dauden euskaldunak eta

euskaltzaleak ere badira. Hauengan ere pentsatu behar dugu. Euskara ez da, soilik, Euskal Herrian bizi garenen arazoa. Kanpoan ere behar dugu geure irudia zabaldu. Hizkuntzari prestigioa eman nahi badiogu, kanpoan ere ikusgai egin behar dugu. Horretarako, nahitaezkoak dugu unibertsitateetan lektoreak eta katedrak ezartzea. Euskara mundu akademikoan erakargarri gertatzen da eta lerro hau indartzea beharrezkoa dugu. Euskalari-tza, egia da, batez ere bertoko jendeak osatuko du, baina atzerrian izan dira eta badira hizkuntzalari handiak gure hizkuntza ardua dienak, eta, bide batez, hizkuntzari behar den prestutasuna ematen diotenak. Horietako bat, hain zuzen, Rudolf de Rijk hizkuntzalari holandarra, Euskal Herriko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu berri duena. Euskalarien mundua ez da izango, esaterako, linguistika erromanikoarena bezain zabala, baina bada mundu txiki baina interesgarri bat hemen ere.

«Euskara jalgi hadi mundura» aldarrikatu zuen Etxeparek. Euskara inprimaturik ikusi zuenean, ezinbestekoa zitzaion bere poza adieraztea. Gaur, gure hizkuntza txikian idatzitako lan batzuk beste hizkuntza handiagoetara itzuliak ikus ditzakegu. Isiltasunetik irteteko modu bat da. Halaber, euskarara itzultzen dira munduko klasikoak. Gaur bertan ospatuko dugu Literatura Unibertsala delako bildumaren ehungarren alea. Inguzaten gaituzten hizkuntzekin alderatuz gero, gauza gutxi dela pentsa liteke, baina tartean ibili den itzultzaile andanaren lan izugarria ikusita, eta euskal komunitatea osatzen dugunon kopurua kontuan harturik, ez da hain gauza gutxi.

Hizkuntza ezagutzetik erabiltzera

Azken urte hauetan egiten ari garena ere ez da gutxi. Esaterako, ikastolak sortu ondoren Hezkuntza sistemari egin den lan eskerga aitortu egin behar da. Hiztun kopurua gehitzeko modua hori zela pentsatu zen bere garaian, eta emaitzak begien bistakoak dira. Izan ere, gaur belaunaldi gazteenean (hogeita bost urtetik

beherakoetan) euskara dakitenak bi aldiz gehiago dira euskararik ez dakitenak baino. Eta hori horrela da, Hezkuntza sistema euskalduntzeko apustua egin zelako bere

ETORKIZUNA

Euskararen etorkizuna euskaldunon esku dago eta gure hizkuntzarekiko dugun atxikimendua izango da gakoa

garaian.

Euskalduntze-alfabetatze arloan egindako lana ere hor dago. Lantegi horretan ari eta aritu direnak aitortza merezi dute. Garai batean militantziaz jardun behar izan bazuten ere, gaur profesionaltasuna bidearen aldeko apustua egin dute.

Komunikabideetan ere ahalegin handia egin da. Hain handia, ezen garai batean gutxi pentsatuko zukeen bezalako maila eta duintasuneko produktuak jartzen baitzizkigute eskuetan. Alde guztietatik, bai edukiz, teknikaz eta baita, zergatik ez, euskararen kalitateari dagokionez ere. Baina oso pozik gaude euskaraz badugulako telebista bat, horren parean, ordea, zenbat daude erdaraz? Teknologia berri deitzen diren horiek ere hor daude. Internet informazio iturri eta tresna izugarria da eta izango da. Euskarak hor gutxienean presentzia lortzen ez badu, irentsi egingo dute inguruko hizkuntza indartsuek.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Roberto Gz. de Viñaspre



Leviatan berriro esnatu da

Hainbat erlijioen kosmogoniak bat omen datoz zientziarekin itsasoa bizitzaren sorgune dela, baina, aldi berean, heriotzaren irudi ere bada. Historian zehar, itsasoaren ur handiak nabigatzaileei izua eragin dieten munstro eskerga eta ikaragarriren bizitoki izan dira: esaterako, XV. mendean Pontoppidan apezpikuak deskribatu zuen *kraken* beldurgarria, itsasontziak irensten zituen olagarro erraldoia; edota Jasconius izeneko munstroa, bere gorputzaren tamaina atzematearren, ahoaz buztanari oratu nahian alferrik omen ziharduena. Guztiarekin ere, sakonera abisaletako piztietan izugarriena Bibliaren zenbait pasartetan aipatzen den Leviatan munstroa da. Logaleak omen dago munduaren sorreratik eta, behialako gizakien ustetan, kome-ni da ez asaldatzea, harik eta munduaren akabera heldu arte, iratzarriko ote den beldurrez.

Alvaro Cunqueiro zenak izkiriaria zuen ilunpetako piztia hauek guztiak aspaldian desagertu direla, sirenekin eta betiko gazte-tasunaren uharteekin batera. Hala ere, idazle galiziarrek zioenez, Erdi Aroko piztien ordez beste munstro beldurgarri batzuk sortu dira: petroliontzi handiak. Garai hartan *Monte Urquiola* petroliontziak Coruñan sortutako marea beltza zuen hizpide Alvaro Cunqueirok, eta isuritako petrolioa Leviatan piztiaren zorne ustela begitantzen zitzaion; kezka zekusan nola petroliontziaren sabel puztuak pozoiz nazkagarria isurtzen zuen itsasora eta hondartza zurietara, bere atzaparez ukitzen zituen bazter guztiak belztuz eta heriotzaren kiratsa barreiatuz.

Alvaro Cunqueiro duela hogeita bat urte joan zitzaigun betiko Ama Lurraren altzora eta, hala izanik ere, egun latz hauetan, Leviatanen antzeko munstroak beste behin bere oka nazkagarria Galiziako kostaldera botatzen duelarik, zorigaitzez bizi-bizirik diraute idazlearen berba hauek: «Gure itsasoaren heriotzaren ikusle izan gaitzek. Nahikoa da halako bizpahiru piztiak Finisterren kontra muturkatzea eta bertan odol-gabetzea. Erraza da. Guztiz aurreikusteko modukoa da».

seiko urrea

Andolin Eguzkitza



Plazerez tundran zehar

Hiztegiek diote eskualde polarretako estepa-belardia dela tundra. Eta irudiak orduan amaigabekotasunezkoak dira, larre latz eta eskasekoak, eta hotza, berebiziko hotza. Eta hala-koak, hain segur, sekulan ere ez naizelako orain gutxi arte tundran barrera ibili. Baina egunokaz ezagutu dudana tundra osterantzekoak izan da, gozoa, argia, bidezidorez betea, eta bat ere laua ez, ibili naizen tundra Arratian baitauka sustraia, haran

horretako Artean izan ere, hangoa da eta Igor Estankona, tundra berezi horren sortzailea. Hala baiteritzo Susarekin orain hilabete atera duen poemategiari.

Nik neuk beti pentsatu dut poema-sorta baten hiruzpalau olerki on aurkituz gero, sorta hori arrakastatsutzat jo daitekeela, bestela eman arren ez baita erraz esangurakor, ireki eta zirrargarri gerta daitekeen poemarik idaztea. Horregatik gertatzen zaizu egundokoa poema-bildu-

ma bat, behin eta berriro zimiko egiten dizuna, baina poza eta betetasunezko satsadez, Eliot-ek zioen bezala, mundua beste modu batez ikusteko eta ezagutzeko aukera etengabe ematen dizuna, eta inoiz irudikatu ez duzun eran gauzak begiratze-ko parada agertzen. Eta halakoa da Igor Estankonak eskaini digun *Tundra* liburua: liburu aberatsa, betea, behin eta berriro ustekabean uzten zaituena. Olerki batean bai, eta hurrengoan ere bai, halako erietiez gozaratzen dizuna. Zeintzuk liburuek — ez poemek — sortu didaten tamaina bereko plazera pentsatzeko ahaleginetan, gutxi heldu zaizkit burura, eta bat behintzat zalantzagabekoa Luis Berrizbeitiaren *Ere-mu karroinduak*.

Izan dadin herri-literaturaren murmu-

rioa dakarkizuten poemak, hala nola *Norabidea gara* izenekoak, non *Lekukoa*-k eta *Ezjakina*-k erritmo perfektuarekin hodeiertzean amaituko edo den bizitzan aurrera egitea besterik ez dagoela agerian uzten dituzten. Izan dadin ondoan agertzen den *Bigarren forma* deritzon poema *betegarria*. Zeren zer esan daiteke *Ulisese*n istorioa osterata ere kontatzen duen olerkiak, baina zantzu berriak eskaintzen dizkizunaz? Edo Luisa Bilbaok, beraren izeko zenak, Mari ikusi zuen gertakaria kontatzen duenaz, «azunbre bat burdinazko elai dabilen [bitartean] teilatupean»? Edo «neguan haritza tximiniatik gora basora itzultzen den bezala, ...zeruari kupula deitza erabaki» eta bertan dagoela diotsun poetaz?